
PRENTSA OHARRA

Agurainek hondakin organikoaren birziklapena hobetzeko auzokideen bilerak amaitu ditu

Aguraingo Udalak uztailearen 3an egingo den batzar irekira joateko eskatu die herritarrei, "*Guk belarria jarri, zuk ekarri*" kanpainaren ondorioak azaltzeko eta udazkenean abian jarriko diren aldaketak zehazteko.

07/06/2024 Agurain. Azken hiru asteetan atarietan egindako 72 bilerak amaitu ondoren, Udalak atariko bilerara joan ezin izan zuten etxeak bisitatzeko kanpainarekin jarraituko du, eta berariazko bilerak egingo ditu hondakin organikoen sortzaile handiekin, hala nola jatetxeekin eta elkarte gastronomikoekin.

Ekainean, Aguraingo Udalak etxeko bilera eta bisitetan nahiz udal-bulegoetan jasotako instantzien bidez jasotako ekarpen guztiak aztertuko ditu, eta emaitzak argitaratuko ditu. Sandra Rodríguez Ingurumen zinegotziak azaldu duenez, "*Aguraingo herritarrei dei egiten diegu uztailearen 3an Udaletxean egingo dugun batzar irekira joateko. Bertan, parte-hartze prozesuaren ondorioak azalduko ditugu eta udazkenean abian jarriko diren aldaketak zehaztuko ditugu*".

Horrela, bilketa-sistema egokiena bilatu nahi da hondakin organikoen kudeaketatik eratorritako arazoak konpontzeko. Izan ere, EHUK egindako azterlanaren arabera, Aguraingo biztanle bakoitzak urtean sortutako etxeko hondakinen 352kg-tik, % 1 baino ez dagokio etxeko hondakin organikoaren gaikako bilketari, eta ehuneko hori nabarmen hobetu daiteke eta ez ditu legezko helburuak betetzen – sortutako etxeko hondakin organikoaren % 45 gaika bildu behar da.

NOTA DE PRENSA

Agurain finaliza las reuniones vecinales para mejorar el reciclaje del residuo orgánico

El Ayuntamiento de Agurain emplaza a la ciudadanía a acudir a una asamblea abierta que se celebrará el 3 de julio para exponer las conclusiones de la campaña “*Cuéntanos, te escuchamos*” y definir los cambios que se pondrán en marcha en otoño.

2024/06/07 Agurain. Una vez finalizadas las 72 reuniones de portales realizadas durante las tres últimas semanas, el Ayuntamiento continuará con la campaña de visitas a los domicilios que no pudieron asistir a su reunión de portal y realizará reuniones específicas con grandes generadores de residuos orgánicos como restaurantes y sociedades gastronómicas.

Durante el mes de junio, el Ayuntamiento de Agurain analizará todas las aportaciones recibidas tanto en las reuniones y visitas domiciliarias como a través de las instancias recibidas en las dependencias municipales y hará públicos los resultados. Según ha explicado la concejal de medio ambiente, Sandra Rodríguez, “*hacemos un llamamiento a la ciudadanía de Agurain a acudir a la asamblea abierta que celebraremos el próximo 3 de julio en el Ayuntamiento donde expondremos las conclusiones del proceso participativo y concretaremos los cambios que se pondrán en marcha en otoño*”.

Así, se pretende dar con el sistema de recogida más adecuado para solucionar la problemática derivada de la gestión de los residuos orgánicos. No en vano, según el estudio elaborado por la EHU-UPV, de los 352kg de residuos domésticos generados al año por cada habitante de Agurain, solamente el 1% se corresponde a la recogida selectiva del residuo orgánico doméstico, un porcentaje manifiestamente mejorable y que no alcanza los objetivos legales establecidos – el 45% de residuo orgánico doméstico generado debe recogerse selectivamente.